

EKIALDE HURBILA. Palestinar bat hil dute Israelgo indarrek tiroz, bi kontrol militarretatik gelditu gabe igaro ostean

Jasser Arafatek Palestinan gertatzen dena kontrolpean ez duela esan du Annanek

PANeko presidenteari eskaintako babes berretsi dute Hamabostek

Erredakzioa | **DONOSTIA**

AEB Ameriketako Estatu Batuek eta Israelek azkenaldian erabilitako argudioei eutsi, eta PAN Palestinako Aginte Nazionalako presidente Jasser Arafatek lurralde palestinarretan gertatzen dena kontrolatzen ez zuela adierazi zuen NBE Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusi Kofi Annanek atzo. «Ez dut uste Arafatek bere lurraldeetan gertatzen dena kontrolatzen duenik. Oso egoera zailan dago, eta horrek bere lidergoari eragin diezaiokeela uste dut», nabarmendu zuen Annanek *Al Jazira* Qatarko satelite telebistari eskaintako elkarrizketa batean.

EB Europako Batasunak, ordea, babes eskaini zion lider palestinarri, Hamabostetako Atzerri ministroek atzo Bruse-lan egindako bileran. «Israelek PAN eta bere presidentea behar ditu terrorismoa desagerrarazi eta bakearen alde lan egiteko negoziatzeko bitartekari gisa», nabarmendu zuen EBk atzo onartutako agirian. Hala, Arafatek «terrorismoaren» aurka borroka egiteko duen ahalmena ahuldu behar ez zela ohartarazi zuten Hamabostek, haren baktzeari erreferentzia eginez. Izan ere, Zisjordaniako Ramala hiriko bere bulegotik ateratzea eragotzi dio Israelek PANeko presidenteari azken bi hilabeteotan. Horrek ekintzaileen aurka jotzeko bere ahalmena murrizten duela salatu du aginte palestinarrek.

Arafati babes eskaintzearekin batera, kritikak zuzendu zituen EBk Israelgo Gobernuaren aurka. Hala, Batasunak finan-



Israelgo soldaduek tiroz hildako palestinarren gorpua, estalita.

tzatutako PANen azpiegiturak suntsitzeari uzteko eskatu zion Tel Avivi. Era berean, orain arte azpiegitura horietan eragindako kalteengatik ordain sariak jasotzeko beharrezko urratsak hartzea aztertuko zutela ohartarazi zioten Hamabostek Israeli. EBren arabera, Israelgo inda-

rrek eragindako kalteak 17,3 milioi eurokoak dira.

Palestinar bat hil dute

Israelgo segurtasun indarrek palestinar bat hil zuten atzo tiroz Tel Avivetik gertu, hark bere autoarekin bi kontrol militarretatik gelditu gabe igaro eta



PANeko presidente Jasser Arafat, atzo, Ramalan.

polizia bat eta soldadu bat arin zauritu ostean. Atentatu bat egitera zihoan ekintzailea zela esan zuten Israelgo iturri militarrek hildakoa, baina PANek gezurtatu egin zuen informazio hori, auto lapur bat zela esanda. Hildakoak ez zeraman armarik. Era berean, bi palestinarrek

zortzi urteko haur bat arin zauritu zuten laban batekin atzo, Zisjordaniako Elon More kokagune juduan.

Israelek areagotu egin zituen segurtasun neurriak atzo Jerusalem, azken egunetan bertan izandako atentatuen ostean. Emakume palestinar batek gainean zeraman leherkaria ez-tandarazi zuen igandean hiri horretan. Israeldar bat hil eta dozena bat zauritu ziren 1985etik emakumezko batek egindako lehen eraso suizidan.

Ekintza horiek eteteko, Jerusalem mendebalde eta ekialde banatuko dituen hesi bat eraikitzea aztertzen ari da Tel Aviv. Banaketa hori estatu palestinar independente baten eta Israelen arteko muga formala bihurtuko den beldur diren Israelgo eskuindar asko ere —Moshe Katsav presidentea barne— aukera horren alde agertu dira.

ARMA ONTZIAREN AUZIA

PANeko finantza ofizial bat kargugabetu dute

PAN Palestinako Aginte Nazionalako segurtasun indarren finantza buru Fuad Shubaki kargugabetu zuen Jasser Arafat presidentek atzo, hark ustez Israelgo Armadak joan den hilabetean atzemandako armaz betetako *Karine A* ontziaren aferarekin izan zuen loturarengatik. PANek auzi horren inguruan irekitako ikerketaren

lehen emaitzak jaso ostean hartu zuen Arafatek Shubaki kargugabetzeko erabakia. Haren aurkako froga nahikoak badaude epaitu egingo dutela jakinarazi zuen PANek.

Shubakiz gain, Palestinako Itsas Poliziako kide Fathi al Razem eta Adel al Mughrabi atxilotzeko agindua eman zuen PANeko presidentek igande gauean. Palestinatik kanpo daude haiek, ordea. Jasser Arafati *Karine A* ontziaren arduradunak atxilotzeko egindako presioa areagotu dute Israelek nahiz Ameriketako Estatu Batuek azken egunetan.

LEIOAKO UDAL Euskaltegia
20. URTEURRENEAN BATAIATZEKO LEHIAKETA
SARIA: 250 €
BALDINTZAK:
Euskaraz izatea
Leioari lotua izatea
AURKEZTEKO
Non: Udal euskaltegiko bulegoan.
Noiz: Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra.
Nola: pila sistema.
TELEFONOAK
94 464 00 02 - 94 400 80 44
Helbidea: Iparragirre etorbidea 78, Leioa
Oharra: Epaimahaiak hala erabakiz gero, saria hutsik gera liteke.

TOLOSAKO UDALA
IRAGARKIA
Gobernu Batzordeak, 2.002.eko urtarrilaren 14ean egindako bileran, hasierako onespina eman zion honako proiektu honi:
"E.AZ.5 "Euskal Herria" eremua Birgaitzeko Plan Berezia.
Proiektua, interesatuek beren interesen aldeko alegazio edo erreklamazioak aurkezteko, hamabost lanegun (iragarki honen azken argitaratzea egin eta biharamunetik kontatzen hasita) jendaurrean jarrita egongo da, Lurzoru Legearen 1976ko Testu Bateratuaren 43. eta 41. artikuluek, Hirigintzako Planeari Aurrez 147.ak eta Eusko Legebiltzararen Plangintza Tresnen eta Hirigintza Gestioaren tramitazioari buruzko ekainaren 30eko 17/94 Legearen 6.ak xedatuaren arabera.
Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Euskaldunon Egunkarian, Garan eta Diario Vascon argitaratuko da.
Espedientea, inork aztertu nahi badu, Gorosabel Zaharreko Hirigintza Bulegoan egongo da, aipameneko epean. Alegazio edo erreklamazioak alkateari zuzendu behar zaizkio eta Udaletxeko Sarrera Erregistroan aurkeztu.
Tolosa, 2002.eko urtarrilaren 22an. ALKATEA.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria